



KUTXABANK TXARTELAK SUSTATZEKO KANPAINA:

“KUTXABANK 2020 IRAILA”

1.- Definizioa:

KUTXABANK S.A.k merkataritza ekintza bat eramango du aurrera Kutxabankek jaulkitako nazio mailako txartelak sustatzeko. Kanpaina horretan adinez nagusiak diren pertsona fisiko guztiek parte hartu ahal izango dute, Kutxabanken bezero badira eta oinarri hauetan jasotako baldintzak betetzen badituzte.

Zozketaren helburu bakarra publizitatea eta sustapena egitea da; hortaz, parte hartzaileentzat ez du inolako gainpreziorik edo tarifa osagarririk izango.

2.- Sustapen honek honako sari hauek izango ditu:

- 30 sari, oinarri hauen 4. atalean zehaztutako txartelekin 2020ko irailaren 1etik 2020ko urriaren 31ra bitartean ordaintzen diren erosketen zenbatekoak itzultzeko, gehienez 500 euroko mugarekin sari bakoitzeko. Saritutako aukeran adierazitako txartelarekin egindako erosketen itzulketa bakarrik jasoko du saritutako pertsona bakoitzak.

3.- Kanpainak 2020ko irailaren 1etik 2020ko urriaren 31ra iraungo du, bi egun horiek barne, eta zozketa 2020ko azaroaren 10ean egingo da.

Ezinbestek bultzatuta, Kutxabankek zozketa bertan behera utzi ahal izango du, parte hartzaileei gorabehera horren berri emanda.

4.- Adinez nagusiak diren pertsona fisikoek parte hartu ahal izango dute sustapen honetan, Kutxabankeko bezero izanik, zozketa egiten denean honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Gutxienez partikularren finantza txartel aktibo hauetakoren baten titularra izatea:

Visa Classic, Visa Oro, Visa Oro Dual, Visa Oro Profesional, Visa Dual, Visa Dual Profesional, Visa Dual K26, Visa Dual K26+, Visa Dual 100%, Visa Dual Nagusi, Sticker/Pulsera Dual/Crédito, Visa Nakar, Visa Partaide, Visa Dual R.Sociedad, Visa Debit, Visa Debit Profesional, Visa Debit K26, Visa Debit K26+, Visa Debit 100%, Visa Debit Nagusi, Visa Debit R.Sociedad, Sticker/Pulsera Débito, Visa Extra, Visa Titanio, T. Vit, T.Azul eta Vía T.

- 2020ko irailaren 1etik 2020ko urriaren 31ra gutxienez 100 euroko zenbateko metatuko erosketak egitea, baliogabetu gabeak, saritutako aukeran adierazitako txartelarekin, parte hartzailea titularra izanik.

- Kutxabankek zozketatik kanpo utz ditzake entitatean mugaeguneratutako saldo zordunak dituzten pertsona fisikoak, datuak babesteko araudiaren arabera publizitaterik ez jasotzeko eskaera egiten dutenak edo jakinarazpen komertzialik jaso nahi ez duten bezeroen fitxategi komunen batean daudenak.



5.- Parte hartzaile bakoitzari “aukera” bat emango zaio 4. puntuan aipatutako txartelekin 100 €-tik gorako zenbatekoa metatu duen txartel bakoitzeko.

“Aukerak” hurrenez hurren zenbakituko dira, 1 zenbakitik hasita.

6.- Baliozkotzat joko dira sareekiko eta entitateekiko informazioaren komunikazioaren trukatzeko sistemen bidez Kutxabanki fitxategi informatikoak prestatzeko datan jakinarazitako eragiketak.

7.- Zozketa Notario aurrean egingo da 2020ko azaroaren 10ean edo hurbileko data batean, aipaturiko egun horretan ezin izan bada egin.

Zerrenda informatikoa prestatuko da 4. eta 5. oinarrietan aipatzen diren baldintzak betetzen dituzten bezeroen izenekin, txartel zenbakiaren arabera ordenatuta eta txartel bakoitzari emandako “aukera” zenbakiarekin edo zenbakiekin.

8.- Zozketa egiteko, Notarioak zenbaki bat aterako du ontzitik, 1 zenbakiaren eta esleitutako azken zenbakiaren artekoa, aipatutako 5. oinarrian adierazten den moduan. Zenbaki hori izango da saritutako lehen aukera.

Gainerako aukera sarituak zein diren jakiteko, bai eta erreserban geratuko direnak ezagutzeko ere, prozedura informatikoen bidez, lortutako zenbakiari honako hau batuko zaio: fitxategian dauden erregistratutako aukera guztien batura zati sari guztien kopurua (30) gehi erreserba kopurua (15); hau da, zenbaki saritua zati 45 egingo da, eta lortutako zatidura beherantz biribilduko da (dagokion zenbaki osoa, dezimalak kenduta), aukera saritu guztiak lortu arte (30 aukera metodo honen bidez), eta ondoren eragiketa bera egingo da erreserba zenbakiak eskuratzeko (15). Ondorio horietarako, fitxategiaren bukaerara iritsiko balitz, kalkuluak erregistratutako lehenengo aukeratik aurrera jarraituko luke, saritutako (30) eta erreserban geratuko diren (15) zenbaki guztiak lortu arte. Kasu honetan erreserbako zenbakiak lortzen diren azkenak izango dira.

9.- Pertsona bakoitzak sari bakarra lor dezake. Pertsona bat behin baino gehiagotan saritua bada, zozketan aukera bat baino gehiago daukalako, saritutako lehenengo aukeraren saria besterik ez du eskuratuko.

10.- Saria egokitu izanaren jakinarazpena gutunez, telefonoz edo posta elektronikoz edo Kutxabankek egokitzen hartzen duen beste edozein bitartekoren bidez egingo zaie saritutako pertsonari. Sustapen honetako sariak ezin izango dira inolaz ere trukatu, aldatu edo konpentsatu pertsona sarituen eskariz, ez eta balioa dirutan eman. Edozein arrazoiengatik, zozketaren egunetik hasi eta hamabost eguneko epean, saritutako pertsonari zozketaren emaitzaren berri ezin bazaie eman, saria automatikoki esleituko zaie erreserbei, dagokien ordenaren arabera. Saritutako pertsonak sariari uko egin ahal izango dio, baina ezin izango dio beste pertsona bati eman. Kasu horretan zozketako hurrengo erreserbari eskainiko zaio saria.

11.- Kutxabankek erabakiko du bezeroei saria nola eta non banatu.

12.- Saritutako bezeroak saria onartzen duela baieztatu beharko du horretarako prestatuko fitxa bat sinatuta, 15 egun naturaleko epean, sariaren jakinarazpena jasotzen duenetik aurrera kontatuta.

13.- Sariari uko egin nahi badio, idatziz jakinarazi beharko du 15 egun naturaleko epean, zozketaren emaitza jasotzen duenetik aurrera kontatuta. Bezeroak sariari uko egiten badio, ez du inolako konpentsaziorik jasoko.



14.- Inolako jakinarazpenik jaso ez bada, saria onartzeko nahiz atzera botatzeko, eta bezeroari jakinarazpena bidali zitzaionetik 15 egun natural igaro badira, sariari uko egin diola ulertuko da. Hala bada, Kutxabankek sariarekin nahi duen bezala jarduteko eskubidea izango du.

15.- Lehiaketan parte hartzean, Kutxabanken Informazio Sistematan sartuko dira saritutako parte hartzailearen datuak eta haren izena, deiturak eta/edo irudia edozein publizitate eta/edo sustapen jardueratan, edozein bitarteko, euskarri edo formatutan, erreproduzitzeko, erabiltzeko edo zabaltzeko helburuarekin soilik tratatuko dira, eta jarduera horiek ez dute ordaindua izateko edo inolako etekinik izateko eskubiderik sortuko, baldin eta berariazko baimena jasota badago sariaren egiaztagirian. Era berean, jakinarazten da, edozein unetan eta datu pertsonalen tratamenduarekin loturiko edozein eztabaidaren aurrean, erreklamazio bat aurkez daitekeela kontrol agintaritzaren aurrean, bai eta datuak ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeke eta aurka egiteko, tratamendua mugatzeko, eramangarritasunerako eta datu pertsonalei dagokienean banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko eskubideak erabili ere. Eskubide horiek idatziz erabili ahal izango dira Kutxabanken helbide sozialera zuzendutako jakinarazpenaren bidez, edo bestela, info@kutxabank.es helbidera mezu elektronikoa bidalita, bi kasuetan NANren kopia erantsita. Uste baduzu zeure datu pertsonalak ez ditugula indarrean dagoen araudiaren arabera tratatu, Datuak Babesteko Ordezkaritzarekin harremanetan jar zaitezke dpo@grupokutxabank.com helbidean.

16.- Saritutako pertsonen kontura izango da kanpaina honetan jasotako sariaren ondorioz sortzen den edozein zerga karga.

17.- Zozketetan ezin izango dira saritu zozketa egiten den egunean zozketan parte hartzeko aukera eman zieten Kutxabank txartelak indargabetuta dituzten pertsonak.

Saria jaso ahal izateko, zozketan parte hartzen duen bezeroak egunean izan behar ditu Kutxabankeko ordainketak eta egindako eragiketa guztiak. Hortaz, ez du inolako zorrik izan behar Kutxabankekin.

18.- Sustapen honetan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek onartzen direla entitateak beronen mekanika zehazteko jarritako baldintzei dagokienean eta parte hartzailearen aldetik berariazko baimena azaldu behar ez bada. Kutxabankek deskalifikatu ahal izango ditu sustapenaren oinarriak bete ez dituzten erabiltzaileak.

Bilbon, 2020eko uztailaren 20an